



EBAZPENA (09/2009 esp., EHIZTARIAK)

Osoko Bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, lehendakaria

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakariorde eta txostengilea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2010eko otsailaren 11n

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (Auzitegia edo LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta JOSEBA ANDONI BIKANDI jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du Ehiztariei buruzko 09/2009 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak hasi zuen hori, Euskadiko Ehiza Federazioaren kontra. Izan ere, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (LDL) 2. artikulua hautsi zuen, ustez, ehizarako federazio-lizentziaren eskatzaileei nahitaez eskatu baitziren Ehiza Federazioak kontratatutako nahitaezko aseguru kolektiboari atxikitzeko, eta ez zuen onartu banaka kontratatutako nahitaezko aseguru.

I.- AURREKARIAK

1. 2007ko azaroaren 26an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari (aurrerantzean LDEZ) bidalitako idazkia sartu zen dagoeneko ez dagoen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren erregistroan. Idazki horren bitartez A.A.P. jaunak, Gipuzkoako Aseguru Artekarien Elkargoaren izen eta ordezkaritza (aurrerantzean Elkargoa), Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari bidalitako salaketaren kopia bidali zuen Eusko Jaurlaritzako Finantza Zuzendaritzak.
2. 2007ko abenduaren 3an LDEZk ohar laburra bidali zion Lehiaren Batzorde Nazionalari, aurreko aurrekarian azaldutako salaketari buruz. Bertan adierazi zuen, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko



dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, LDEZk izango duela eskumena aipatutako salaketaren bitartez azaldutako kasua jakiteko.

3. 2007ko abenduaren 18an, Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketen zuzendariak bidalitako ofizioa sartu zen dagoeneko ez dagoen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren erregistroan. Bertan adierazi zen Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen ustezko arau-hausteak jakiteko organo eskudunak Euskal Autonomia Erkidegokoak direla.
4. 2007ko abenduaren 21ean LDEZk salaketa zehatzagoa aurkezteko agindeia egin zion Elkargoari, lehiari buruzko araudiaren kontra egin zuten gertaerak zehatz zitzaizkion.
5. 2008ko urtarrilaren 15ean jaso zuen Elkargoak Lehia Defendatzeko legearen kontra egin zuten gertaerak zehazten dituen salaketa, Elkargoak bidalita. Hain zuzen ere, salaketa horretan azaldu zen ehizarako federazio-lizentziaren eskatzaileei nahitaez eskatu zitzaizkion Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak kontratatutako nahitaezko aseguru kolektiboari atxikitzeko, eta ez zela onartu banaka kontratatutako nahitaezko aseguruak.

Idazki horren bitartez, lehia defendatzearen alorreko bidezko prozedura tramitatzeko eskatu zion LDEZri, bai eta tramite eta gorabeheren berri eman diezaiola Elkargoari ere.

6. 2008ko urtarrilaren 29an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren ebazpenaren bitartez, isilpeko informazioa hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zigor-espeditentia hasi aurretik, Lehia Defendatzeko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
7. Isilpeko informazioa egin bitartean, LDEZk informazioa eskatu zion Euskadiko Ehiza Federazioari eta Gipuzkoako Ehiza Federakuntzari martxoaren 27an, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari 2008ko martxoaren 27an eta ekainaren 2an.
8. 2008ko apirilaren 9an J.U.L. jaunak sinatutako idazkia sartu zen dagoeneko ez dagoen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren erregistroan. Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren ordezkartzan bidali zuen idazkia, presidentea den aldetik. Idazki horretan jarraian labur-labur azaldu dena argudiatu zuen. Hona hemen:
 - a) Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak ez du federazio-lizentziarik ematen eta ez du Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitako nahitaezko aseguruak kontratatzen.
 - b) Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak lurralde-federazioen eta euskal federazioen arabera antolatzen ditu kirol-federazioak. Lege



horren 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, kirol-federazioek, beren eskurantz ez gain, administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituzte eskuordetzan. Kasu horretan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa arituko dira. Egiteko publiko horien artean, besteak beste, federazio-lizentziak eman eta tramitatzekoa dago.

- c) Pertsona fisikoen federazio-lizentziek, 14/1998 Legearen 48. artikuluan lege-aginduz ezarritakoaren arabera, aseguru bat izango dute berekin, arrisku hauek estaliko dituenak: 1) Erantzukizun zibila. 2) Kalte-ordainak, gorpuz-atalak edo funtzioak galduz gero edo hilez gero. 3) Osasun-laguntza, osasun-sistema publikoak bere gain hartzen ez dituen kasuetan eta arloetan.
- d) Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuak Kirolari buruzko Legea garatzen du, eta 24. artikuluan dio euskal federazioek eskumena izango dutela federazio-lizentziak emateko. Lizentzia horiek ematean, besteak beste, lizentzien erregimena —agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik— ezartzeko eskumena dago, bai eta nahitaezko arrisku estaldura bermatzeko aseguru kolektiboak kontratatzeke ere.
- e) Lurralde-federazioek ezin dute federazio-lizentziarik eman, eta ez dituzte federatu guztientzat nahitaezkoak diren aseguru kolektiboak kontratatzen.

Halaber, honako agiri hauek ere aurkeztu zituen: 1.- Lizentziak emateko baldintzei buruzko informazioa, Euskadiko Ehiza Federazioak onartuta. 2.- Lizentziak Gipuzkoako Federakuntzaren bitartez tramitatzeko baldintzei buruzko informazioa. 3.- 2006, 2007 eta 2008. urteetan tramitatutako lizentzia kopurua. 4.- Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren estatutu-tuetako IFKren kopia. 5.- Azken hiru urteetan egindako batzar orokorretako akten kopia.

- 9. 2008ko apirilaren 9an Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kiroletako zuzendariak sinatutako idazkia sartu zen LDEZn. Honakoa adierazi zen bertan:
 - a) Euskadiko Ehiza Federazioak kontratatuko duen aseguru, federazio-lizentziari lotuta egongo dena, aseguru kolektiboa izango da.
 - b) Federazio-lizentzia emateko eskatuko duten pertsonak aseguru hori onartu beharko dute, eta ezin izango da banaka kontratatu.
 - c) Kultura Sailaren web gunearen bitartez eman zen jakitera Kiroletako zuzendariaren zirkularra, federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedurari buruzkoa; halaber, interesdunek eskatuta, telefonoz eman zuen zirkular horren edukiari buruzko informazioa Kiroletako zuzendaritzak.



Idazki horrekin batera dokumentu hauek aurkeztu ziren: 1.- Kirol Zuzendaritzaren 2006ko apirilaren 6ko zirkularra, federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedurari buruzkoa. 2.- Kirol Zuzendaritzak kirolari bati bidalitako idazkia.

Honakoa dio “Kirol Zuzendaritzaren 2006ko apirilaren 6ko zirkularra, federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedurari buruzkoa” izenekoak: *Euskadiko federazioak dira federazio-lizentzien erregimena – agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik– ezartzeko eskumena duten erakundeak [...]. Funtzio horrek barne hartuko du, orobat, nahitaezko arrisku estaldura bermatzeko aseguru kolektiboak kontratatzea. Beraz, federazio-lizentzia emateko zein **prozedura**¹ erabili behar den eta zein **betekizun**² konplitu behar diren **arautu** behar du. [...] Lizentziaren agirian argi jasoko dira [...] h) Nahitaezko aseguruaren kuota: titularren osasun arriskuak estaltzen dituen osasun laguntzako aseguruaren, erantzukizun zibileko aseguruaren eta heriotzagatiko eta galera anatomiko eta funtzionalengatiko kalte ordainen aseguruaren kuota, hain zuzen.*

Beste alde batetik, kirolari bati bidalitako gutun argigarrian honakoa adierazi zuen Kirol Zuzendaritzak: [...] *Horrenbestez, federazioen dekretuaren arabera ondorioztatu da euskal lizentziek nahitaezko aseguruak eduki beharko dutela beti, eta Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak aukera ematen diela federazioei euskal lizentziek nahitaezko aseguruak dutela ziurtatzeko beharrezko akordioak hartzeko. Horrela bada, Ehiza Federazioak eskumena dauka federazio-lizentzia eskatzekotan Euskal Federazioaren aseguruak harpidetzeko eskatzeko. Ehiztariek nahi duten aseguru oro harpidetu ahal izango dute, federazioa edozein dela ere, baina federazio-lizentzia eskuratu ahal izateko nahitaezkoa izan daiteke euskal federazioaren aseguruak izatea.*

10. 2008ko apirilaren 16an J.U.U. jaunak sinatutako idazkia sartu zen LDEZn. Euskadiko Ehiza Federazioaren ordezkari bidali zuen idazkia, presidentea den aldetik. Idazki horren bitartez jarraian labur-labur azaldu diren gogoetak egin zituen. Hona hemen:
- a) Euskadiko Ehiza Federazioak federazio-lizentziak ematen ditu, eta Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitako nahitaezko aseguruak kontratatzen ditu.
 - b) Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak lurralde-federazioen eta euskal federazioen arabera antolatzen ditu kirol-federazioak. Lege horren 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kirol-federazioek, beren eskurantz gain, administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituzte eskuordetzan. Kasu horretan, herri-administrazioaren ordezkari

¹ Jatorrizkoan letra lodian

² Jatorrizkoan letra lodian



laguntzaile gisa arituko dira. Egiteko publiko horien artean, besteak beste, federazio-lizentziak eman eta tramitatzekoa dago.

- c) Pertsona fisikoen federazio-lizentziek, 14/1998 Legearen 48. artikuluan lege-aginduz ezarritakoaren arabera, aseguru bat izango dute berekin, arrisku hauek estaliko dituenak: 1) Erantzukizun zibila. 2) Kalte-ordainak, gorpuz-atalak edo funtzioak galduz gero edo hilez gero. 3) Osasun-laguntza, osasun-sistema publikoak bere gain hartzen ez dituen kasuetan eta arloetan.

Horrenbestez, aseguru kolektiboak dira ehizarako federatu guztientzat nahitaezkoak diren aseguruak.

- d) Euskadiko kirol-federazio guztiek nahitaez bidali behar dizkiote Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzari hitzartutako polizak eta horien baldintzen kopia, bermatuta dauden estaldura eta prestazioak zehaztuta daudela bertan.
- e) Federatuentzako aseguru kolektiboak kontratatzeari buruzko antzeko sistema ikus daiteke Nahitaezko kirol-aseguruaren gutxienezko prestazioak ezartzen dituen 849/1993 Errege Dekretuan.
- f) Euskadiko Ehiza Federazioaren asmoa, nahitaezko aseguruaren kontratazio kolektiboa eginda, ez da federatu gehiago eskuratzea, eta ez du inolako irabazirik eskuratzen.
- g) Euskadiko Ehiza Federazioak ez du lehia garbiaren kontrako jardunbiderik egin; aldiz, kirolaren antolamendu juridikoak ezartzen dizkion legezko betebeharrak zorrotz betetzen saiatu da.
- Halaber, honako agiri hauek ere aurkeztu zituen: 1.- Hitzartutako polizen zerrenda eta horien baldintzen kopia. 2.- Batzarrari aurkeztutako aseguruaren aukerak. 3.- Lizentzia eskatu nahi duten interesdunek bete beharreko formularioak. 4.- 2006, 2007 eta 2008. urteetan emandako lizentzia kopurua. N, Q, eta S lizentziak Mutuasport aseguru-etxearekin tramitatu ziren, eta M-1 eta M-2 motetakoak Mapfre aseguru-etxearekin. 5.- Euskadiko Ehiza Federazioaren IFKren eta estatutuen kopia. 6.- Azken hiru urteetan egindako batzar orokorretako akten kopia.

Agiri horien artean, besteak beste, honakoak zeuden:

- Batzarrari aurkeztutako aseguruaren aukerak; 2007. urtean honakoak izan ziren:
- Mutuasport.
 - Mapfre.



- César Rueda aseguru-artekaritza.
- Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak 2007an ehiza-agiriak eskatzeko egindako inprimakian, Euskadiko Federazioaren Txartelaren prezioari buruzko informazioan, aseguruak azaltzen dira, eta prezioa ezberdina da eskainitako estalduraren zenbatekoaren arabera. Halaber, eskabidearen atzealdean honakoa azaltzen da: “Edozein agiri tramitatzeko nahitaezkoa izango da honako hauek bidaltzea eskabidearekin batera: [...] Denboraldi honetarako indarrean dagoen EHIZA-ASEGURUAREN FOTOKOPIA (federazioarena eskatuz gero, ez da aurkeztu beharko)”.
 - Honakoa azaltzen da batzar orokorrak 2008ko martxoaren 10ean egindako ohiko batzarraren aktan: “[...] Legearen artikuluetako batean ezarrita dago federazio-lizentzietan aseguruak, bai norbere kalteenak eta bai erantzukizun zibilekoak, islatu beharko direla, eta Euskadiko Federazioa da aseguru horiek hitzartzeko eskumena duen organoa. Bazkideetako batek galdetu du [...] Euskadiko Federazioak ezin dien horren berri eman ehiztariei, ez dezaten asegurua beste aseguru-etxe batzuetan atera, kontuan hartuta federazio-aseguruak oraindik aurrera erantzukizun zibileko asegurua ere izango duela barruan. Era berean, [...] presidenteak galdetu du onetsi egingo den [...] aseguruak Mapfrerekin kontratatzea. Batzarrak aho batez onetsi du.”
 - Honakoa azaltzen da batzar orokorrak 2008ko apirilaren 5ean egindako ohiko batzarraren aktan: “[...] Euskadiko Federazioaren aseguruak, legeak agintzen duen moduan, Euskadiko batzarrak onetsitako erantzukizun zibileko aseguruak izango ditu barruan, erantzukizun zibileko 35 milioi pezeta (210.354,24 €) edo 50 milioi pezeta (300.506,06 €) estaliko dituela. Bada, ez dago erantzukizun zibileko asegururik ez duen edo 35 milioi pezeta baino gutxiagoko estaldura duen federazio-asegururik. [...] Federazioei buruzko Dekretuak dio Euskadiko Ehiza Federazioaren barruan ezarritako aseguruaren kuota bildu behar dela [...]”.
11. 2008ko apirilaren 29an Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kiroletako zuzendariak sinatutako idazkia sartu zen LDEZn. Horrekin batera, Euskadiko Ehiza Federazioak harpidetutako aseguru-polizen fotokopiak bidali ziren.
12. 2008ko ekainaren 2an, *espedienteari dokumentazioa eransteko eginbidea* egin zuen LDEZk eta, horren bitartez, *Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren web gunean dagoen informazioa* (<http://www.fedecazaqipuzkoa.com>) sartu zela agerrarazi zuen.



13. 2008ko uztailaren 9an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskadiko Ehiza Federazioaren kontrako (lizentziak emateko ardura duena) zigor-espedientea hasiko zela ebatzi zuen, Lehia Defendatzeko Legearen 1. eta 2. artikuluetan debekatutako jokabideak izan zituelako. Halaber, ebazpen horren bitartez, aipatutako espedientearen instruktorea eta idazkaria izendatu ziren. Ebazpen hori 2008ko uztailaren 28an jakinarazi zitzairen Euskadiko Ehiza Federazioari eta Elkargoari.
14. 2008ko urriaren 9an espedientearen instruktoreak Gertaerak Zehazteko Orria idatzi zuen, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. Gertaerak Zehazteko Orri hori 2008ko urriaren 14an jakinarazi zitzairen Euskadiko Ehiza Federazioari eta Elkargoari.
15. 2008ko azaroaren 11n J.U.U. jaunak sinatutako idazkia sartu zen LDEZn. Euskadiko Ehiza Federazioaren izen eta ordezkaritza bidali zuen idazkia, presidentea den aldetik. Idazki horren bitartez Euskadiko Ehiza Federazioak alegazioak aurkeztu zituen, jarraian labur-labur azaldu direnak. Hona hemen:

1.- Euskadiko Ehiza Federazioaren jokaera ez da Lehia Defendatzeko Legearen kontrakoa, kontuan hartzen bada Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legearen arabera Federazioek eskuordetzan emandako egiteko publikoak betetzen dituztela federazio-lizentziak emateko eta tramitatzeke.

Euskadiko Kirolari buruzko Legeak eta 16/2006 Dekretuak bermatzen dute Euskadiko Ehiza Federazioak izandako jokaera.

Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legea garatzen duen Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuak 24.1 artikuluan dio Euskadiko federazioek, egiteko publiko horiek erabiliz, federazio-lizentzien erregimena —agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik— ezartzen dutela eta, gainera, nahitaezko estaldurak bermatzeko aseguru kolektiboak kontratatu behar dituztela.

3.- 14/1998 Legeak argi dio: Euskal federazioek egiten dituzten lizentziek aseguru daukate berekin, eta aseguru hori, jakina, euskal federazio bakoitzak bakarrik kontrata dezake. 16/2006 Errege Dekretuak ere argi azaltzen du.

Legeak estaldurak lizentzietan bertan sartzeko beharra ezartzen die euskal federazioei, Estatuko eredu juridikoari jarraituz.



4.- Euskadiko federazioei buruzko dekretuak Kirolari buruzko legea garatzen du nahitaezko aseguruak kontratatzeari buruzko gaien. Dekretua nahitaez bete behar da, eta horixe egin du Euskadiko Ehiza Federazioak eta, beraz, ez dago zuzenbidearen aurkako inolako jokabiderik.

5.- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak 16/2006 Dekretuaren proiektua onetsi zuen, eta sail horretako inork ez zuen ezer azaldu lehia murrizteko ustezko jardunbideari buruz edo lege-babesik ez zuen arau-xedapenen bat egoteari buruz.

6.- Instruktoreak ondorioztatu du lehia gutxiago murrizten duten moduak daudela, esaterako euren aseguruen berri ematea federatu nahi dutenei; baina ezinezkoa da federazio batek hori egitea, erantzukizun zibileko poliza eta istripuen aseguruetakoko milaka poliza aztertu beharko liratekeelako.

16. 2009ko urtarrilaren 28an, espedientearen instruktoreak, probidentzia bidez adierazi zuen zigor-prozeduraren instrukzio-fasea itxiko zela.

Probidentzia hori 2009ko urtarrilaren 30ean jakinarazi zitzaion Euskadiko Ehiza Federazioari, eta 2009ko otsailaren 2an Elkargoari.

17. 2009ko apirilaren 2an, dagoeneko ez dagoen Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, ebazpena egin zuen. Horren bitartez beste instruktore bat izendatu zuen, aurrekoa ordeztzeko. Ebazpen hori 2009ko apirilaren 6an jakinarazi zitzaion Euskadiko Ehiza Federazioari eta Elkargoari.

18. 2009ko apirilaren 6an instruktoreak ebazpen-proposamena idatzi zuen, eta bertan honakoa proposatu zion LDEAri:

“LEHENENGOA: Adieraz dezala Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1.a) artikuluko debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egin zirela, honako hauek, hain zuzen ere: Euskadiko Ehiza Federazioak kontratatutako aseguru kolektiboa ezartzea ehizarako federazio-lizentzia ematean.

BIGARRENA: Euskadiko Ehiza Federazioa (IFK: G-48.261.465; helbidea: Julian Gaiarre 48, Ionja, 48004-Bilbao) har dadila arau-hauste horren erantzuleztat.

HIRUGARRENA: Zigorra ezarri behar izatekotan, horren zenbatekoa zehaztean, kontuan izan ditzala honakoak:



- a. Ez dago inolako lege-salbuespenik aipatutako jokabiderako, eta ez zaio aplikatu behar Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 4. artikuluan ezarritakoa. Hala eta guztiz ere, Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25.3 artikuluko a) letrak dio nahitaezko aseguruen kuota argi jaso beharko dela lizentziaren agirian. Xedapen horretan ez da azaltzen "hala badagokio" edo antzeko oharrik eta, beraz, araua ulertzeko modu egokitzat hartu duena jarraitu du federazioak, nahiz eta, espedientearen instrukzioan agertu den bezala, horrek ez duen salbuesten jokaeretan lehia defendatzeari buruzko arauak betetzetik, eta batez ere uztailaren 3ko 15/2007 Legea betetzetik. Hala ere, ezar litekeen zigorra zehazteko garaian inguruabar hori kontuan hartu beharko litzatekeela uste dugu, salbuespen moduan ez bada ere, aringarri moduan.
- b. Agintari publikoek jokabidea lagundu dute, kontuan hartzen bada Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak (federazioaren babes, kontrol eta aholkularitza teknikorako organoa) ulertu zuela kirol-lizentzia emateko eskatzen duten pertsonak Federazioak kontratatuko duen asegurua onartu beharko dutela, eta ezin izango dutela banaka kontratatu. Inguruabar hori ere, nabarmenago gainera, ezar litekeen zigorraren aringarritzat hartu beharko litzatekeela uste da.

LAUGARRENA: Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 53. artikulua aipatzen dituen gainerako adierazpenak har ditzala. "

Ebazpen-proposamen hori 2009ko apirilaren 8an jakinarazi zitzaizen Euskadiko Ehiza Federazioari eta Elkargoari.

19. 2008ko maiatzaren 8an J.U.U. jaunak sinatutako idazkia sartu zen LDEZn. Euskadiko Ehiza Federazioaren izen eta ordezkartzan bidali zuen idazkia, presidentea den aldetik. Idazki horren bitartez Euskadiko Ehiza Federazioak alegazioak aurkeztu zituen, jarraian labur-labur azaldu direnak. Halaber, inolako zigorrik ez ipintzeko eskatu zuen, Euskadiko Ehiza Federazioaren jarduera salbuetsita dagoelako, Legean ezarritakoaren arabera.
 - 1.- Federazioa ez dago ados LDEZk adierazitakoarekin, honakoa dioenean: arau batean ere ez da zehazten nahitaezko asegurua nahitaez helarazi behar zaionik lizentziaren hartzaileari, Kirolari buruzko Legearen 48. artikulua ezarritakoaren arabera federazio-lizentziek aseguru bat izango baitute berekin. Legeak ez die kontratatze ahalmena ematen federazioei, kontratatzea behartzen du (izango dute berekin). Hori dela eta, Federazioak adierazi du bere jarduna legearen arabera izan dela eta, horrenbestez, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 4.1 artikulua babesten duela.



2.- Federazioa ez dago ados baieztapen honekin: Legeak ez du ezartzen nahitaez atxiki behar zaionik Federazioak kontratatutako polizaren bati. Hainbat modutan bete daiteke legean xedatutakoa... Beste sistema batzuen bitartez ere beteko litzateke agindua, esaterako banakako aseguru nahitaez aurkeztuz lizentzia eman ahal izateko. Federazioaren iritziz kasu horretan lizentziak ez luke estaldurarik izango, eta estaldura duena aurretiaz bereizita eta banaka kontratatu duen lizentzia-eskatzailea da. LDEZk proposatutako formulak ez dauka zerikusirik Kirolari buruzko Legearen 48. artikulua eskatutakoarekin, Euskadiko Ehiza Federazioaren jokabidea babesten baitu, Lehia Defendatzeko Legearen 4.1 artikuluan xedatutako ondoretarako.

20. 2009ko maiatzaren 11n espedientearen instrukzioaren idazkariak aipatutako zigor-espedientea bidali zion LDEAri. Espedientearekin batera, txosten bat ere bidali zuen eta, bertan, LDEZk egindako ebazpen-proposamena eta interesdunek aurkeztutako alegazioak ere badaude.
21. 2009ko ekainaren 20an LDEAren Osoko Bilkurak probidentzia bidez erabaki zuen tramitera onartuko zela EHIZTARIEI buruzko 09/2009 espediente-zenbakia zuen espedientea, eta JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA jauna izendatuko zela txostengile. Probidentzia hori 2009ko ekainaren 29an jakinarazi zitzaion Gipuzkoako Aseguru Artekarien Elkargoari eta Euskadiko Ehiza Federazioari.
22. 2009ko uztailaren 24an LDEAren Osoko Bilkurak jokabideari beste kalifikazio juridiko bat emateko autoa egin zuen EHIZTARIEI buruzko 09/2009 espedientearen, Lehia Defendatzeko Legearen 51.4 artikulua oinarri hartuta. Auto hori 2009ko abuztuaren 8an jakinarazi zitzaion Gipuzkoako Aseguru Artekarien Elkargoari, eta 2009ko abuztuaren 10ean Euskadiko Ehiza Federazioari.

Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 37.1.f artikulua dio zigor-prozedura ebazteko epea eteteko aukera egongo dela, Kontseiluari iritzia eskatu eta egindako kalifikazio juridikoan aldaketaren bat izaten denean (LDEA aztertzen dabilen kasuan). Kasu honetan kalifikazio berria 2009ko uztailaren 24an egin zen, eta alderdiek 2009ko abuztuaren 28ra arte aurkez zitzaketen alegazioak. Hau da, ebazteko epea 2009ko uztailaren 24tik abuztuaren 28ra egon da etenda.

23. Beste kalifikazio bat egiteko emandako autoak honakoa dio bere oinarri juridikoetan:

“[...] LEHENENGOA.- LDEAren esku-hartzearen justifikazio juridikoa



Lehia Defendatzeko Legearen 51. artikuluan Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluan ebazteko prozedura dago azalduta, eta honakoa dio bertako laugarren atalak: *“Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ustez, Ikerketen Zuzendaritzak egindako proposamenean Kontseiluari aurkezten zaion auziari emandako kalifikazioa ez baldin bada beharbada egokia, beste kalifikazio bat egin eta interesatuei eta Zuzendaritzari aurkeztuko die, hamabost eguneko epean egoki irizitako alegazioak egin ditzaten”*.

LDLren zortzigarren xedapen gehigarriak diotenaren arabera, *“Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean”*.

Lehia Defendatzeko Legearen xedapen horiek oinarri hartuta, EAEko eskumenaren eremuan, LDEAk eskumena izango du gertaeren beste kalifikazio bat ezartzeko, LDEZk egindako kalifikazioa zuzenbideari hoberen egokitzen zaiona ez dela uste duenean.

Gipuzkoako Aseguru Artekarien Elkargoak honako jokabide hau salatu zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan Euskadiko Ehiza Federazioaren kontra: Azken horrek Federazioak kontratatutako nahitaezko aseguruari atxikitze baldintza ezarri zien ehizarako federazio-txartela izan nahi zuten interesdunei, eta ez zien onartu banaka kontratatutako nahitaezko asegurua.

LDEZk ezarritako kalifikazio juridikoaren arabera, Euskadiko Ehiza Federazioaren jokabideak LDLren 1. artikulua hausten du eta, aldiz, LDLren 2. artikulua aplikatu beharko ez litzatekeela uste du.

Auzitegi hau ez dago ados LDEZk egindako kalifikazio juridikoarekin eta, horrenbestez, LDLren 51.4 artikulua ematen dion eskumena erabilita, beste kalifikazio juridiko bat ezarri du.”

BIGARRENA.- LDLren 1. artikulua aplikatzeko beharrezko baldintzak ez betetzea

Auzitegi honek uste du egondako jokaerak eta espedientean azaltzen diren elementuak kontuan hartuta, LDEZk proposatutakoaren kontra, Euskadiko Ehiza Federazioak garatutako jokabidea ezin dela LDLren 1. artikulua kontrakoa izan, jokabideren bat xedapen horren kontrakoa dela esan ahal izateko ezinbestekoa baita borondate-akordioen bat egotea, horrelako moduren batean islatuta:



- Beren-beregizko edo isileko akordioa harpidetu duten enpresa edo erakundeen artean. Ekonomikoki autonomoak diren borondateak azaldu behar dira akordioan³.
- Erabaki edo gomendio kolektiboa, ekintza loteslea den ala ez izango dela ezberdintasuna⁴.
- Hitzartutako jardunbidea, agente ekonomikoen artean jokabide kontzienteko paralelismoa dakarren jokaeratzat deskribatu daitekeena, eta horien arteko nolabaiteko lankidetzeta edo koordinazioa eskatzen duena⁵.
- Jakinaren gaineko jardunbide paraleloa, operadoreek jokabide berberak dituztenean eta alderdien artean hitzartu ez denean⁶.

Euskadiko Ehiza Federazioak garatutako jokabidea ezin da sartu LDLren 1. artikuluan, ez baita betetzen artikulua hori aplikatu ahal izateko beharrezkoa den borondate-akordioari buruzko baldintza.

Azken finean, Euskadiko Ehiza Federazioari bakarrik egotz dakiokkeen aldebakarreko jokabidea da eta, berez, ez dago LDLren 1. artikulua aplikazio-eremuan.

HIRUGARRENA.- LDLren 2. artikulua aplikatzeko baldintzak

Honakoa dio Lehia Defendatzeko Legearen 2. artikuluko 1. atalak: *“Debekaturik geratu da enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean”*. Atal horretan abusuzko jokabide tipikoen zenbait adibide azaltzen dira.

Jokabide horiek jazarri eta zigortu ahal izan daitezten, xedapen horren arabera, bi baldintza bete behar dira: enpresa batek nagusitasunezko jarrera izatea eta hori abusuz ustiatzea. Lehiari buruzko zuzenbideak debekatzen duena ez da nagusitasunezko jarrera, baizik eta merkatuan nagusitasunezko jarrera naturala duten enpresek egiten dituzten abusuzko jokabideak.

³ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpena, 2003ko ekainaren 13koa, Transmediterránea/Euroferry/Buquebus, 543/02 espedientea

⁴ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpenak, Anele, 1990eko urriaren 30ekoa, eta Andaluziako Imitaziozko Bitxigileak, 2006ko martxoaren 17koa, 592/05 espedientea.

⁵ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpena, 1992ko martxoaren 6koa, Henkel Ibérica, 306/91 espedientea

⁶ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpenak, 1986ko uztailaren 18koa, Española de Zinc, eta 1987ko urtarrilaren 9koa, Asturiana de Zinc.



Beste alde batetik, xedapen horren hirugarren atalak honakoa aurreikusten du beren-beregi: *“Artikulu honetan aurreikusten den debekua ezartzeko, enpresa batek edo batzuek merkatuan nagusitasun-posizioa dutela legezko xedapen baten bidez erabakita egon beharko da”*.

Azken xedapen hori oinarri hartuta, abusuzko egintzak egiteko debekua nagusitasunezko jarrera *ex lege* aitortuta dagoenean ere ezarri behar da. Arau hori aplikatu ahal izateko honako hau hartu behar da kontuan:

- Nagusitasunezko jarrera lege-mailako arauen baten bitartez aitortu denean, ez da aztertu behar izango jarrera hori ondorioztatzeko beharrezko baldintzak bete diren, eta arauz nagusitasuna duen enpresaren jokabidea abusuzkoa den bakarrik zehaztu behar izango da azterketan.
- Legezko monopolioa zehazteak ez du baimena ematen enpresak nahi duen bezala jarduteko merkatuan; aldiz, LDLtik eratorritako betebeharren arabera egokitu beharko du bere jokabidea. Gauzak horrela, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak adierazi duenez⁷, nagusitasunezko jarrera duen enpresak erantzukizun berezia du merkatuan duen jokaeran; izan ere, lehentasunezko jarrera duenez, berez jar dezake arriskuan merkatua dinamizatzeko deitutako beste operadore batzuk egon edo garatzea.
- Lege baten aplikaziotik ondorioztatutako jokabideak izango lirateke 2. artikuluan azaldutako debekua aplikatzeko salbuespen bakarra, LDLren 4. artikuluan xedatutakoa betez. Hala ere, argi geratu behar da lege-xedapen batek *ex lege* nagusitasunezko jarrera dagoela zehazten badu, baina operadore horrek ez badu merkatuan eduki beharko lukeen portaera, erabat zigortu ahal izango dela legez zehaztutako nagusitasunezko jarrera duen operadorearen balizko abusua.

LAUGARRENA.- Euskadiko Ehiza Federazioaren jokabidea LDLren 2. artikuluan kokatzea.

Euskadiko Ehiza Federazioak egindako jokabidearekin LDLren 2. artikulua hautsi ahal izan den zehazteko, horretarako beharrezko baldintzak bete diren aztertu behar da, hau da, nagusitasunezko jarrera duen enpresa bat dagoen eta jarrera hori abusuz erabili duen.

Ebazpen honen laugarren oinarrian adierazi den bezala, LDLren 2. artikuluko hirugarren atalak beren-beregi aurreikusi du debekua aplikatu

⁷ Ikusi, besteak beste, EEJAren 1983ko azaroaren 9ko epaia, 322/81 gaia, Michelin.



behar zaiela nagusitasunezko jarrera lege-xedapen baten bitartez eskuratu duten enpresen abusuzko jokaerei.

Lehiaren Defentsarako Auzitegiak hainbat gaitan izan du horri buruzko iritzia emateko aukera⁸.

Kirol-federazioak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dutenak, eta horietan kirolariak, teknikariak, epaileak, taldeak eta kirol-elkarteak biltzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-modalitate guztiak egin, sustatu eta antolatzeko.

Berezko dituzten eskuduntzez gain, kirol-federazioek administrazio-egiteko publikoak ere egiten dituzte eskuordetzan. Kasu horretan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa aritzen dira⁹.

Salatutako gertaerei dagokienez, komeni da adieraztea hainbat arauk monopolio-jarrera ematen diotela Euskadiko Ehiza Federazioari federazio-lizentziak eman eta tramitatzeko.

- Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 25. artikuluan euskal kirol-federazioek eta lurralde-federazioek egin behar dituzten administrazio-egiteko publikoak daude ezarrita, eta horien artean beren-beregi aipatzen da federazio-lizentziak eman eta tramitatzea.
- Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, 12 eta 13. artikuluetan, lurralde-federazioei ematen die euren modalitateko federazio-lizentziak tramitatzeko eskumena, eta euskal federazioei horiek emateko eskumena, azken horiek ezarritako baldintzekin eta prozedurarekin bat.
- Azkenik, federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedurari buruzko Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren 2006ko apirilaren 6ko zirkularrak dio modalitate bakoitzeko Euskadiko federazioak direla federazio-lizentzien erregimena –agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik– ezartzeko eskumena dutenak.

Laburbilduz, Euskadiko Ehiza Federazioak, EAEn federazio-lizentziak emateko eskumena duen erakunde bakarra denez, nagusitasunezko jarrera du ehizarako federazio-lizentziak tramitatu eta emateko merkatuan, horixe delako horretarako legez gaituta dagoen erakunde bakarra.

⁸ Ikusi, besteak beste, "Atzerriko futbola telebistaz ematea" gaia (310/1992 espediente) eta, batez ere, "Nuestra Señora del Carmen de Cariño" arrantzale-kofradia" gaia (329/93 espediente). Azken horretan, honakoa ezarri zuen LDAk: "6. artikuluko debekua nagusitasunezko jarrera lege-xedapenen bidez ezarri den kasuetan ere aplikatu behar da (16/1989 Legearen 6.3 art.), printzipioz debekatuta dauden baina legea aplikatetik edo legearen ondoriozko araudia aplikatetik salbuetsita dauden akordio eta jardunbideekin ere alderatuz (16/1989 Legearen 2. art.)."

⁹ 14/1998 Legearen 15.3 artikulua



Lehia Defendatzeko legearen 2. artikulua aplikatzeko bigarren baldintzari dagokionez —hau da, abusuzko egintza egitea— espediente hau irekitzea eragin zuen salaketa eta LDEZk bidalita bertan agertzen diren jokaerak kontuan hartuta, adierazi behar da federazioak nolabaiteko diskrezionaltasun-tartea duela federazio-lizentzien erregimena —agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik— ezartzeko orduan, horren barruan dagoela arriskuen nahitaezko estaldurak bermatzen dituzten aseguru kolektiboen kontratazioa. Kirol-federazioei esleitutako gaitasun hori indarrean dauden arauen arabera garatu behar da, eta bereziki Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen arabera.

Gauzak horrela, federazio-lizentzien eskatzaileei Euskadiko Ehiza Federazioak aurretiaz aseguru-etxe bakar batekin kontratatu duen nahitaezko aseguru kolektiboa kontratatzeke egindako ezarpenak lehia murriztuz lezake. Izan ere, printzipioz, ondore baztergarriak ditu ehiza-aseguruen merkatuan lehiatzen diren gainerako enpresei dagokienez eta, gainera, mugatu egiten du erabiltzaileek gehien komeni zaien aseguru-etxea aukeratu ahal izateko duten gaitasuna.

Hala ere, Auzitegiak uste du hau ez dela une prozesalik egokiena salatutako jokabideari LDLren 2. artikulua aplikatzeari buruzko iritzia emateko, eta mamiaiari buruzko azken erabakia ebazpen-prozeduraren amaieran hartu beharko dela, LDEZk egindako jokaerak, espedientean dauden froga eta agiriak, eta alderdiek azaldutako alegazioak aztertu ondoren.

Tramite-ebazpen honen helburua da Zerbitzuak salatutako gertaerei dagokienez egindako kalifikazio juridikoaren aldaketa justifikatzea, Auzitegi honen iritziz ez datorrelako bat LDLren xedapenekin.”

24. 2009ko abuztuaren 25ean espedientearen instruktoreak sinatutako idazkia sartu zen LDEAn. Horren bitartez, LDEAk beste kalifikazio bat egiteko emandako autoari LDEZk egindako alegazioak bidali zituen. Alegazio horietan aipatu da, autoa aztertu eta bertan adierazitakoa defendagarria dela aitortu ondoren, instruktoreak berriro esan duela, erabat, ebazpen-proposamenean adierazitakoa.
25. 2009ko irailaren 24an LDEAren Osoko Bilkurak erabaki zuen jokaera osagarriak egingo zirela gertaerei buruzko kontu zehatz batzuk argitze aldera, bere iritzia zein izango zen erabakitzeko, Lehia Defendatzeko Legearen 51. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Jokaera osagarri horiek, bada, alderdiekin egindako batzarrak izan ziren: 2009ko urriaren 1ean Euskadiko Ehiza Federazioarekin, 2009ko azaroaren 3an Elkargoarekin, eta abenduaren 3an alderdi interesdun guztiekin.
26. 2010eko otsailaren 5ean LDEAk espediente hau eztabaidatu eta erabaki zuen.



27. Honako hauek dira interesdunak:

- EUSKADIKO EHIZA FEDERAZIOA
- GIPUZKOAKO ASEGURU ARTEKARIEN ELKARGOA.

II. FROGATUTAKO GERTAERAK.

LDEAk uste du LDEZk egindako instrukzioan jarraian adierazitako gertaerak egiaztatu direla, eta prozeduran interesdun diren alderdiek ez dituzte zalantzan jarri. Hona hemen:

28. Euskadiko Ehiza Federazioa nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena duen irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da. Kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak eta kirol elkarteak biltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, ehiza modalitatea praktikatu, sustatu eta antolatzeko¹⁰.
29. Federazio lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da, bere titularrari federazio bateko kide izaera ematen dio, eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du; betiere, lehiaketa bakoitzean diren araei jarraituz. Federazio lizentzia bakarra izango da, eta, horren bidez, titularra kirol modalitate bateko bai lurraldeko federazioari bai Euskadiko federazioari atxikita egongo da¹¹.
30. Euskadiko Ehiza Federazioak, dituen administrazio-egiteko publikoen artean, bere modalitateko federazio-lizentziak ematen ditu. Egiteko hori gauzatzean lizentzien erregimena —agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik— ezartzen da. Zeregin horrek nahitaezko arrisku estaldurak bermatzeko aseguru kolektiboen kontratazioa ere hartzen du¹².
31. Euskadiko Ehiza Federazioak, 2007ko martxoaren 10ean egindako ohiko batzar orokorrean, aurkeztutako hiru eskaintzen artean aho batez onetsi zuen MAPFRE Agropecuaria Compañía Internacional de Seguros y Reaseguros S.A. aseguru-etxearen (aurrerantzean MAPFRE) kontratazioa.

Horrenbestez, 2007/04/15etik aurrerako ondorioekin, Euskadiko Ehiza Federazioa da MAPFREekin harpidetutako 9030780207915, 9030780207917 eta 9550700003774 zenbakidun polizen hartzailea. Hiru

¹⁰ EBAZPENA, 2007ko maiatzaren 28koa, Kirol zuzendariarena, Euskadiko Ehiza Federazioaren Estatutuen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzen duena. 1. artikulua.

¹¹ 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa. 23. artikulua, 1 eta 2. atalak.

¹² Euskadiko Ehiza Federazioaren Estatutuen 10.2 artikulua, *in fine*, eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 24.2 artikulua.



hilean behin berrikusi eta eguneratzen dira poliza horiek, hartzaileak unean-unean jakinarazten duen poliza-atxikipen kopuruaren arabera.

Horrela, nahitaezko aseguruan, Federazioak besteren kontura kontratatzen du, kirolaria Federazioaren eta MAPFREren artean harpidetutako poliza kolektibo bakarrari atxikitzeko kudeatzaile moduan jardunez.

32. Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak —federazio-lizentziak tramitatzeko arduradunak¹³— “2007an ehiza-agiriak eskatzeko” egindako inprimakian, ezarritako betekizun eta prozedurei jarraituz, honakoa adierazi zuen:

EUSKADIKO FEDERAZIOAREN TXARTELA/TARJETA FEDERATIVA DE EUSKADI

<i>ESTATU-MAILAKO ESTALDURA DUEN ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA / SEGURO RC CON COBERTURA ESTATAL</i>	<i>ESTATU-MAILAKO ESTALDURA DUEN NORBERAREN KALTEEN ASEGURUA / DAÑOS PROPIOS CON COBERTURA ESTATAL</i>	<i>PREZIOA / PRECIO</i>
<i><u>210.354,23 €</u></i>	<i>MUERTE/ HERIOTZA: 42.070,85 € INVALIDEZ/ BALIAEZINTASUNA: 30.050,61 €</i>	<i>43,70 €</i>
<i><u>300.506,05 €</u></i>	<i>MUERTE/ HERIOTZA: 42.070,85 € INVALIDEZ/ BALIAEZINTASUNA: 42.070,85 €</i>	<i>49,40 €</i>

ARGIBIDEETAN (eskabidearen atzealdean azaltzen dira) honakoa dago adierazita:

[...]

2.) Edozein agiri tramitatzeko nahitaezkoa izango da honako hauek bidaltzea eskabidearekin batera: **NORTASUN-AGIRIAREN FOTOKOPIA ETA denboraldi honetarako indarrean dagoen EHIZA-ASEGURUAREN FOTOKOPIA**¹⁴ (federazioarena eskatuz gero, ez da aurkeztu behar). [...]

33. Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren web gunean (<http://www.fedecazagipuzkoa.com>), Ehiza baimenak / Seguruak ataleko

¹³ Lizentzien tramitazioak, besteak beste, honako eskumen hauek hartzen ditu: Federatu nahi dutenei argibideak ematea federazio lizentzien baldintzei eta ondorioei buruz, federazioko kide egiteko beharrezkoak diren agiriak eta datuak jasotzea eta lizentzien zenbateko osoa kobratzea, eta zenbateko hori Euskal Federazioari likidatzea.

¹⁴ Jatorrizkoan letra lodian.



—ezkerreko menua— argibideen atalean, honakoa adierazten da formularioari buruzko argibideetan: “Edozein agiri tramitatzeko nahitaezkoa izango da denboraldi honetarako indarrean dagoen ehiza-aseguruaren fotokopia postaz edo faxez (943474551) bidaltzea (aseguru eskatuz gero, ez da aurkeztu behar). Beste erkidego batzuetako ehiza-lizentziak eskatzeko nahitaezkoa izango da ehizarako **Gipuzkoako**¹⁵ federazio-lizentzia izatea.

Bete beharreko formularioak honakoa dio:

[...]

Euskadiko Federazioaren Txartela¹⁶:

Erantzukizun Zibileko 210.354,23 €-ko aseguruarekin

45,00 €

Erantzukizun Zibileko 300.506,05 €-ko aseguruarekin 51,00 € “

34. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak (Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen babes, kontrol eta aholkularitza teknikorako organoa) 2008ko apirilaren 11ko idazkian ulertu zuen kirol-lizentzia emateko eskatzen duten pertsonak Euskadiko Ehiza Federazioak kontratatuko duen aseguru onartu behar dutela, eta kirolari horiek ezin izango dutela banaka kontratatu. Horrela ulertzen jarraitzen du kirolari bati bidalitako gutun argigarrian, honakoa adierazi baitzuen: [...] *Horrenbestez, federazioen dekretuaren arabera ondorioztatu da euskal lizentziek nahitaezko aseguru eduki behar dutela beti, eta Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak aukera ematen diela federazioei euskal lizentziek nahitaezko aseguru dutela ziurtatzeko beharrezko akordioak hartzeko. Horrela bada, Ehiza Federazioak eskumena dauka federazio-lizentzia eskatzekotan Euskal Federazioaren aseguru harpidetzeko eskatzeko. Ehiztariak nahi duten aseguru oro harpidetu ahal izango dute, federazioa edozein dela ere, baina federazio-lizentzia eskuratu ahal izateko nahitaezkoa izan daiteke euskal federazioaren aseguru izatea.*

III. OINARRI JURIDIKOAK.

LEHENENGOA.- APLIKA DAITEZKEEN ARAUAK

35. 2007ko irailaren 1ean sartu zen indarrean Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea. Ebazteko dagoen espediente honen kasuan, LDEZk Lehia Defendatzeko Legearen urraketatzat hartzen duen salatutako jokabidea 2007ko martxoan hasi zen, eta luzatu egin zen. Hala eta guztiz ere, 2008ko uztailaren 9an hasi zen zigor-espedientea eta, beraz, Lehia

¹⁵ Jatorrizkoan letra lodian.

¹⁶ Jatorrizkoan letra lodian.



Defendatzeko indarrean dagoen 15/2007 Legearen arabera tramitatu da espedientea, lehenengo xedapen gehigarriaren 1. atalean xedatutakoa aplikatuz.

BIGARRENA.- ESPEDIENTEAREN HELBURUA.

36. Espediente honen helburua LDEZk egindako ebazpen-proposamenean dago zehaztuta, bai eta LDEAk 2009ko uztailaren 24an EHIZTARIEI buruzko 09/2009 espedientean jokabideari beste kalifikazio juridiko bat emateko egin zuen autoan ere. Horien arabera, LDEAk ebatzi behar du EUSKADIKO EHIZA FEDERAZIOAk egindako jokabidea —hau da, ehizarako federazio-lizentziaren eskatzaileei nahitaez eskatu zuela Federazio horrek kontratatutako nahitaezko aseguru kolektiboari atxikitzeko, eta ez zuela onartu banaka kontratatutako nahitaezko aseguru— Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2. artikuluko 1. eta 2.c) ataletan debekatutako nagusitasunezko posizioaren abusua den.

HIRUGARRENA.- ZIGOR-PROZEDURA ETA BESTE KALIFIKAZIO BAT EMATEKO AUTOA.

37. Administrazioaren zigor-ahalmena, Estatuaren zigor-antolamenduaren adierazpena dela, Konstituzioaren 25. artikulua dioen bezala, mugatuta dago, administrazio-zigor eta arau-hausteez legez kotatutako printzipioa bete behar dutelako, Konstituzioaren 24. artikulua bermatzen duen erabat bermatutako prozesua eta babes judizial eragingarria izateko eskubideari lotuta, eskubide subjektibo honen aitortzan islatzen dena: inori ezin zaio zigorrik ezarri legez aurreikusitako kasuetan ez bada, eta zigor-eskumen hori legez esleituta duten administrazio-agintaritzek ezarri ez badute, defentsarako eskubidea, akusazioaren berri izateko eskubidea eta errugabetasun-presuntzioaren eskubidea guztiz zaintzen dituen prozedura baten bitartez.
38. Lehia Defendatzeko Legeak arautzen duen zigor-prozedurari dagokionez, Auzitegi Gorenak 2007ko otsailaren 27ko epaian adierazi zuen administrazioaren zigor-prozedurak ez daudela zigor-prozeduretan eskatzen diren berme guztiei, zorrotzeneri, lotuta. Hori dela eta, esaterako, ez dira akusazio-printzipioaren ondorio guztiak aplikatu behar, ez frogak azaltzeari dagokionez ez eta gertaeren kalifikazioari dagokionez ere. Hain zuzen ere, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, administrazio-organoa den aldetik eta berariazko legeei lotuta dagoela, zilegitasuna dauka beste froga-material batzuk sartzeko erabakia hartzeko, zein eman zaion froga-materiala instruktoreak proposatutakoa baino zentzu kaltegarriagoan balioztatzeko interesdunarentzat. 16/1989 Legearen (RCL 1989, 1591) 43. artikulua aukera ematen dio, hain zuzen ere, aurkeztu zaion gaia Zerbitzuak behar bezala estimatu ez duela ondorioztatzeko, beste



kalifikazio bat egin ahal izango dela eta, alderdiei entzun ostean, bigarren kalifikazioaren arabera ebatzi.

39. Aztertzen gabiltzan kasuan, LDEZk instrukzioan ondorioztatu dituen gertaerei dagokienez —ebazpen-proposamenean islatuta eta alderdiek ebazpen-proposamenari aurkeztutako alegazioetan ezeztatu ez dituztela—, LDEAk, Lehia Defendatzeko Legearen 37.1.e eta 51.4 artikuluetan xedatutakoari jarraituz, beste kalifikazio bat egin du ustez Lehia Defendatzeko Legearen kontrakoa zen jokabideari buruz, eta alderdiek ez dute zalantzan ipini beste kalifikazio hori, horren kontrako alegazioak ere aurkeztu ez dituztela.

LAUGARRENA.- AUZIAREN AZALPENA.

40. LDEAk, frogatutakotzat aitortutako gertaerak eta horiei buruzko kalifikazio juridiko berria oinarri hartuta, LDLren 2. artikulua arabera, aztertu egingo du gertaera horiek bat datozen Lehia Defendatzeko Legearen 2. artikuluan xedatutakoarekin. Gainera, Euskadiko Ehiza Federazioak egindako alegazioekin egiaztatuko du, honela laburbil daitekeela: Lehia Defendatzeko Legearen 4. artikuluan dago babestuta LDEZk lege horren kontrakotzat hartuta Federazioari egotzitako jokabidea. LDLren agindu horrek lehenengo atalean dio bertako 1., 2. eta 3. artikuluetan ezarritako debekuak ez zaizkiola aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokabideei. Gauzak horrela, Federazioak uste du legitimazioa izango lukeela printzipioz Lehiari buruzko Zuzenbidearen kontrakoa izango litzatekeen jokabide bat egiteko, jokabide hori lege baten aplikazioaren ondorio bada. Euskadiko Ehiza Federazioaren ordezkariaren iritziz, LDEZk egotzitako jokabidea babesten duen legea Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legea da. Izan ere, 25, 48 eta 49. artikuluen bitartez, kirol-federazioei esleitutako administrazio-egiteko publikoen artean ezartzen du federazio-lizentziak eman eta tramitatzea, horiek zenbait arrisku eskatzen dituen aseguruaren daramatela berekin.
41. Auzia horrela eta laburbilduta azaldu ondoren, eragindako merkatua aztertuko dugu lehenengo eta behin, Euskadiko Ehiza Federazioak bertan duen jarrera aztertzeke, bai eta Federazio horrek egin ahal izan duen abusua aztertzeke ere.

BOSGARRENA.- MERKATU AIPAGARRIA.

42. Federazioak Lehia Defendatzeko Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera nagusitasunezko jarrera duen estimatu ahal izan baino lehen, merkatu aipagarria mugatu behar da (1978ko otsailaren 14ko epaia, United Brands Continental/Batzordea, 27/76). Horri dagokionez, LDEAk bere gain hartu du LDEZk ebazpen-proposamenean egin duen merkatuaren deskribapena, behar



bezala eta egoki deskribatzen baitu merkatu aipagarria aztertzen gabiltzan kasuan.

43. Gauzak horrela, kontuan izan behar dira honako alderdi aipagarri hauek:

1.- Federazio lizentzia¹⁷ agiri pertsonala eta besterenezina da, bere titularrari kirol-modalitate zehatz bateko federazio bateko kide izaera ematen dio, eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du¹⁸. Federazio-lizentzia bakarra da eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta ehizarako lizentziaren kasuan, titularra lurraldeko ehiza-federazioari (Araba, Bizkaia edo Gipuzkoakoa) eta Euskadiko Ehiza Federazioari atxikita egongo da.

2.- Kirol federazioek¹⁹ zenbait administrazio-egiteko publiko betetzen dituzte, eskuordetzan, eta horien bitartez, besteak beste, kirol federazioek baino ez dute eskumena izango lehiaketa ofizialak arautu, kalifikatu eta baimentzeko eta federazio-lizentziak eman eta tramitatzeko. Gauzak horrela, Euskadiko Ehiza Federazioak, administrazio-egiteko publikoa betez²⁰, monopolio moduan eman ditu ehizarako federazio-lizentziak.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoan 2006 eta 2007. urteetan, hurrenez hurren, 19.692 eta 18.166 lizentzia eman dira, eta Gipuzkoak zenbateko osoaren % 70 hartzen du. Hurrengo koadro honetan lurralde historikoen arabera banakatu dira emandako federazio-lizentziak.

EMANDAKO FEDERAZIO-LIZENTZIAK ²¹		
	2006	2007
ARABA	1.864	1.571
BIZKAIA	3.696	3.359
GIPUZKOA	14.132	13.236 ²²

¹⁷ 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa. 23. artikulua

¹⁸ 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa. 3. artikulua: *Lehiaketa ofizialak izango dira dagokien federazioak ofizialtzat kalifikatzen dituenak.*

¹⁹ 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa. 14 eta 36. artikulua.

²⁰ Zuzenbide publikoko korporazioei buruzko doktrina konstituzionaletik (Konstituzio Auzitegiaren 67/1985, 132/1989, 113/1994, 179/1994 eta 107/1996 epaiak) ondoriozta daiteke Federazioak zuzenbide publikoko korporazio gisa har daitezkeela.

²¹ Hainbat modalitatetan: M-1, M-2 (2007an MAPFREekin tramitatu zirenak), N, Q, S (2007an Seguros Mutuasportekin tramitatu zirenak), P. (335. folioa).

²² Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak dio 13.369 izan direla (149. folioa).



GUZTIRA	19.692	18.166
----------------	--------	--------

Iturria: Euskadiko Ehiza Federazioa

4.- Horrela bada, autonomia-mailako federazio-lizentzien merkatu aipagarrian Euskadiko Ehiza Federazioa da horiek emateko eskumena duen erakunde bakarra. Nabaria da, beraz, merkatu horretan Euskadiko Ehiza Federazioak nagusitasunezko jarrera duela, eskaintzaile bakarra delako eta monopolioa duelako lizentziak emateari dagokionez. Hala ere, araututako egintza denez, ezin da ukatu hori ematea, araudian xedatutakoaren arabera eskuratzeko beharrezko baldintza guztiak betetzen baditu eskatzaileak.

Lizentzia bakoitzak arrisku hauek, gutxienez, estaltzea bermatzen duen aseguruaren ekarriko du berekin: Erantzukizun zibila, Galera anatomiko edo funtzionalengatiko edo heriotzarengatiko kalte ordainak, eta Osasun laguntza, osasun sistema publikoak doaneko estaldurarik ematen ez duen kasu eta esparruetarako, titularrari arrisku horiek beste aseguru batek estaltzen ez dizkionean²³.

Berariazko aseguru hori²⁴ nahitaezkoa delako eskaintzen dituzte ehizarako aseguruak aseguru-etxeek. Gainera, aseguruaren ez da federatutako lizentziadunentzat bakarrik, armak erabiltzea dakarren²⁵ kirol bat egiteko ondorioztatutako lege-eskariari erantzuteko aseguru-produktu alternatiborik ez duten baina ehizarako lizentzia eduki nahi duten gainerako pertsonentzat ere baita^{26 27}.

²³ 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa. 26. artikulua.

²⁴ Berariazkoaren hori indarrean dagoen araudian bertan ere azaltzen da: 63/1994 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, nahitaez harpidetu beharreko ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren araudia onesten duena. 1. artikulua. *Izaera, nahitaezkoatasuna eta araubide juridikoa.*

1. Ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren nahitaez harpidetu behar da, eta *erantzukizun zibileko aseguruaren espezialitate bat* da. Bere helburua, araudi honetan ezarritako muga barruan, ehizan aritzearen ondorioz ehiztariak izan ditzakeen erantzukizunak estaltzea da.

²⁵ Ehizaren eremuari dagokionez, ehiztariaren erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruaren Ehizari buruzko 1970eko apirilaren 4ko legearen 52. artikulua arabera ezarri zen. Honakoa dio: *Nahitaezko aseguruaren*.- 1. *Armak erabiltzen dituzten ehiztariak lege honen 33. artikulua 5. atalean ezarritako pertsonen kalteak ordaintzeko betebeharra estaltzeko moduko aseguru-kontratua hitzartu beharko dute.* Horrela bada, nahitaezko aseguruaren izateko beharra aseguruak armak erabili izatearekin dago lotuta lehenengo eta behin, eta ondorioz, ehizarako lizentzia gisa eskatzen da armei lotutako lizentziak tramitatzean.

²⁶ 63/1994 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, nahitaez harpidetu beharreko ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren araudia onesten duena.

1. artikulua. *Izaera, nahitaezkoatasuna eta araubide juridikoa.*

(...)

2. *Armak erabiltzen dituzten ehiztariak, ehizan aritu bitartean, ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren kontratua eduki beharko dute, araudi honetan ezarritakoari egokitu. Ezin izango da ehizarako lizentziarik eskuratu aurretiaz egiaztatu ez bada aseguru-kontratu hori egin dela, eta ezin izango da ehizan aritu kontratua izan eta ondore guztiak ez baditu.*

²⁷ 117/1996 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomi Elkartearen ehiza baimena arautzeko dena.

Ehiza baimenak ez du baliorik izango, baldin erosten ez bazaizkio ondoko agiri hauek:

a)



5.- Ehizarako hainbat aseguru eskaintzen dira merkatuan, hainbat aseguru-etxek eskainita²⁸, eta, besteak beste, istripu, erantzukizun zibil, osasun-laguntza eta defentsa juridikoaren adarretan²⁹ jarduteko baimenak dituzte. Eskaintzen diren modalitateetan ohikoa da nahitaezko estaldurak eta borondatezkoak bateratzea. Izan ere, Euskadiko Ehiza Federazioak azaldutako M1 (9030780207915 poliza) eta M2 (9030780207917 poliza) aukerek, nahitaezko estaldura duen erantzukizun zibilaz (90.151,82 € gain³⁰, erantzukizun zibileko estaldura osagarri bat ere badute, 120.202,42 € eta 210.354,24 €-koa hurrenez hurren, bai eta defentsa juridikoa eta istripuengatikoa aseguruaren hainbat estaldura ere.

6.- Gaur egun aseguru-etxeek ohiko salmenta-bideak erabiltzen dituzte (zuzeneko salmenta, aseguru-artekaritzak, bezeroarenganako hurbiltasuna lehenesten duten aseguru-bitartekaritzak), bai eta *on line* kontratazioa ere (batzuetan bide bakarra dena), berehalakotasuna³¹ ematen diola kontratazioari.

Horrela bada, ehizarako aseguruaren merkatu aipagarri horri eragiten zaizkio kalteak Euskadiko Ehiza Federazioak —merkatu horretan eta ehizarako aseguruarekin lotura izan dezaketen merkatuetan parte hartu ez arren—, federazio-lizentzia eskuratu ahal izateko, Federazioak kontratatutako aseguru kolektiboari atxikitzeko beharra ezartzen duenean. Gainera, betebeharrak horren ondorioz, lehia murriztu lezakeen jokabidea garatzen du, oztupoak ezartzen baititu merkatu horretan lehiatzen diren enpresak sartzeko, eta mugatu egiten baitu federazio-lizentzia eskuratu nahi duen pertsonaren aukera-askatasuna.

7.- Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, federazio-lizentziak eta ehizarako lizentziak 66.529 izan ziren guztira 2006. urtean³².

2006

b) Ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren kontratu bat harpidetu dela eta kontratua indarrean dagoela frogatzen duen agiria, hori guztia indarreko arauetan xedatutakoaren arabera.

²⁸ http://www.consumer.es/web/es/economia_domestica/finanzas/2007/07/20/165018.php
http://www.consumer.es/web/es/economia_domestica/finanzas/2008/01/27/174106.php

²⁹ 6/2004 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 29koa, aseguru pribatuak antolatzeko eta gainbegiratzeko legearen testu bategina onetsi zuena. 6. artikulua.

³⁰ 63/1994 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, nahitaez harpidetu beharreko ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren araudia onesten duena. 3. artikulua. *Estalduraren zenbatekoaren mugak*. Nahitaez harpidetu beharreko aseguruak gehienez hamabost milioi pezetako zenbatekoa estaltzen du, biktima bakoitzeko, ehizan aritzearen ondorioz pertsonari eragindako gorputz-kalteen ordainak egiteko.

³¹ Publizitatean, adibidez, Express, Bizkor eta Estandar modalitateak aipatzen dira.

³² Txosten hau egin den egunean Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak ez ditu argitaratu ehizarako lizentziei buruzko 2007ko datuak.



	ARAB A	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
EMANDAKO FEDERAZIO- LIZENTZIAK	1.864	3.696	14.132	19.692
EHIZARAKO LIZENTZIAK	9.450	18.754	18.633	46.837
GUZTIRA	11.314	22.450	32.765	66.529

Iturria: Bertan eginda, Euskadiko Ehiza Federazioak emandako datuak (emandako federazio-lizentziak: 234 eta 235. folioak) eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren estatistika ofiziala (Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza eta arrantzarako lizentziak. http://www.nekanet.net/estadistica/datos/Lic_cazapesca_9206.xls) oinarri hartuta.

Baina lizentzien metatutako kopuru hori ez dator bat kontratatutako ehiza-aseguru kopuruarekin, ohikoa baita aseguru bera erabiltzea lizentzia bietan azaltzen den aseguru izateko betebeharra betetzeko³³ eta, halaber, federatzeko arrazoiaren atzean Federazioak eskaintako aseguru lortzea egon daiteke. Horrela bada, federatutako lizentziadunek eta ehizakoek ehiza-aseguruak kontratatzean bikoiztasunik egin ez dutela oinarri hartuta³⁴, ehiza-aseguruaren merkatua 46.837 aseguruak izango litzateke 2006. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan —bertan ditu eraginak aztertutako jokabideak—. 46.837 ehiza-aseguru horietatik % 42 (19.692) Euskadiko Ehiza Federazioak ezarri eta kontratatutako nahitaezko aseguruari atxikita kontratatuko lirateke.

8.- LDEZko instruktoreak adierazitakoaren arabera, zaila da jakitea zenbat pertsona atxiki zaizkion borondatez aseguru kolektiboari eta zenbat nahitaez, federazio-lizentzia emateko ezinbestekoa delako. Gipuzkoako Aseguru Artekarrien Elkargoak Gipuzkoarako emandako datuak oinarri hartuta (170 aseguru), Euskadiko Ehiza Federazioak monopolioa duenez ehiza-lizentziak emateko eta bere aseguru kolektiboa ezarri duenez, federazio-lizentziei lotutako ehiza-aseguruaren % 1,20 ingururi eragingo lioke ehiza-aseguruaren merkatuan Gipuzkoan, eta % 0,9ari Gipuzkoako ehiza-aseguru guztiei dagokienez. Ehuneko hori gainerako lurralde historikoetara ere zabalduta ahal izango litzateke. Nolanahi ere, ehuneko txikia da.

³³ Federazio-lizentzian aipatutako kontratatutako estalduren laburpenean aipatzen da, adibidez, 1. Ehiza egitearen ondorioz [...] eragindako kalteak [...] estaltzen dituela, edo ehiztariaren istripu-aseguru, ehiza egitearen edo kirol-tiroan ibiltzearen ondorioz [...].

³⁴ Bikoiztasun horiek, aurkeztutako salaketan azaltzen den bezala, egon badaude. Izan ere, lizentziadun batzuk, aseguru kontratatuta dutela, Federaziora joaten direnean federazio-lizentzia eskuratzeko, nahitaez atxiki behar izan dira Federazioak harpidetutako aseguru kolektiboan. Hala ere, ehiza-aseguruaren merkatuaren gutxieneko hedadura ezartzearen bikoiztasunik ez dagoela uste izateak ez ditu emaitzak aldatzen, eta proposamen honetan aztertutako jokabidearen ondorioetara hurbiltzeko aukera ematen du.



9.- Beste alde batetik, lizentzian jasotako kontzeptu ekonomikoen arabera³⁵, Euskadiko Ehiza Federazioak ez du inolako onura ekonomikorik eskuratzen federatutako lizentziadunei nahitaezko aseguru helaraztearekin lotuta³⁶. Onuraren bat eskuratuko balitz, ondo hornitutakotzat hartzen den aseguru kolektiboa izatetik ondorioztatutakoa izango litzateke, lizentziaduna izan litekeenak aseguruak bilatu eta erkatzeko kostuak minimizatzen dituela eta bere erakargarritasun-gaitasunak federatu gehiago ekarriko lukeela —horixe da Federazioaren helburuetako bat—. Ondorioz, bere baliabideak handituko liriteke, lizentzia ematearen ondorioz lurralde-federazioaren eta autonomia-federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuotak ezartzen baitira.

SEIGARRENA.- EUSKADIKO EHIZA FEDERAZIOAK MERKATU AIPAGARRIAN DUEN NAGUSITASUNEZKO JARRERA

44. Euskadiko Kirolari buruzko Legearen bidez, kirol-federazioek nagusitasunezko jarrera dute lizentziak tramitatu eta emateko merkatu aipagarrian, modu eskusiboan ematen baitaie titularrak lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen dituzten federazio-lizentziak tramitatu eta emateko zeregina. Kirolari buruzko legeak berak kirol-federazioak administrazioaren agente laguntzaileak direla dio. Gauzak horrela, Lehia Defendatzeko Legeak, nagusitasunezko jarreraren abusua debekatzeaz gain, abusuarekin lege hori hautsi egiten dela ere badio. Lege-agindu horretan (LDLren 2. artikulua) aurreikusitako debekua LDLren 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatu behar zaie legezko xedapenen baten bidez ezarritako nagusitasunezko jarrerei. Legeen arabera enpresa batek nagusitasunezko jarrera izan arren, horrek ez du salbuetsiko lehiari buruzko araudia betetzetik; are gehiago, erantzukizun handiagoa ematen dio bere jardunean, eta alderdi hori zehatz aztertu beharko da ebazpen honen bitartez.
45. Kirol-lizentziak tramitatu eta emateko merkatuko nagusitasunezko jarrera lege-jatorritik ondorioztatu da eta, horrenbestez, interesdunek ez dute zalantzan ipini jarrera hori. Merkatu aipagarrian duen nagusitasunezko jarrera ezarrita eta eztabaidatu gabe egon arren, LDEAk uste du hainbat zehaztapen egin behar direla Federazioak merkatu horretan izandako portaera aztertu aurretik. Zehaztapen horiek kirol-federazioen eta ehizan ibiltzeko administrazio-lizentziak zein ehizarako federazio-lizentziak eskatzen duten kontratuaren izaera juridikoaren ingurukoak izango dira.

³⁵ 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa. 25. artikulua.

³⁶ Federazio-lizentzian aipatutako aseguruaren prima; M1: 19,31 € ehiztariaren/arrantzalearen poliza bateratuari atxikitzeagatik guztizko kostuaren (9030780207915: 12,58679 €) eta istripu kolektiboen aseguruari atxikitzeagatik guztizko kostuaren (955070003774: 6,72322 €) batura (332 folioa).



46. Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legearen 15. artikuluan definitutakoaren arabera, kirol-federazioak erakunde pribatuak izango dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak, beren lurralde-esparruan kirol-mota bera sustatzen edo praktikatzen duten kirolari, teknikari, epaile, elkarte eta taldeak bilduko dituztena. Konstituzio Auzitegiak, 1985eko maiatzaren 24ko epaian, honela definitu zituen kirol-federazioak: kirol-modalitate bera egiten duten kirolari eta elkarateak biltzen dituen elkarteak, administrazio-egiteko publikoak esleituta dituenak.
47. Euskal legeriak, EAeko kirola antolatu eta arautzearen, kirol-modalitate bakoitzean, kirol-federazioei esleitzen die administrazio-egiteko publikoak. Egiteko publiko horiek herri-administrazioaren eskuordetzan egiten dituzte kirol-federazioek, eta egiteko publiko horien artean, besteak beste, federazio-lizentziak eman eta tramitatzekoa dago. Federazio-lizentziak ematea araututa dago eta, ondorioz, ezin da hori ematea ukatu eskatzaileak beharrezko baldintza objektiboak betetzen baditu. Federazio-lizentzia nahitaezkoa da kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.
48. Lurralde-federazioei dagokie lizentzia tramitatzea, eta Euskadiko kirol-federazioei lizentzia ematea. Horretarako Euskadiko kirol-federazioek lizentzien formatu eta edukia onetsiko dute baina, hala ere, lizentziaren agiriak honako kontzeptu ekonomiko hauek azaldu beharko dira, besteak beste: a) Nahitaezko aseguruaren kuota; b) Euskadiko kirol federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota; c) Lurraldeko kirol federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.
49. Federazio-lizentzia tramitatzeko, nahitaezkoa izango da eskatzaileak gaitasuna neurtzeko mediku-azterketa egitea eta, gainera, honako arrisku hauen estaldura bermatuko duen aseguruaren kontratatu beharko du:
- a) Erantzukizun zibila.
 - b) Kalte-ordainak, gorputz-atalak edo funtzioak galduz gero edo hilez gero.
 - c) Osasun-laguntza, osasun-sistema publikoak bere gain hartzen ez dituen kasuetan eta arloetan, baldin eta kirolariak beste aseguru baten bidez ez baditu estalduta arriskuak.
50. Beste alde batetik, kirola egiteak eragin ditzakeen arriskuen estaldurari dagokionez, legeak dagoeneko esandakoa errepikatzen du dekretuak, bertan ezarrita baitago kirolari buruzko legeak aipatzen dituen arriskuen estaldura bermatuko duen aseguruaren eduki beharko dutela lizentziak. 16/2006 Dekretuak 14/1998 Legearekin alderatuz egiten duen arau-osagarria, arriskuen estaldurari dagokionez, aseguruaren prestazioak zehazten dituela da, Estatuko lehiaketa federatuetarako nahitaezko kirol aseguruaren gutxienezko prestazioak ezartzen dituen ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoak izan beharko direla gutxienez. Halaber, betebeharrak ezartzen du, hau da, Euskadiko kirol-federazio



guztiak nahitaez bidali behar dizkiotela Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari hitzartutako polizen zerranda eta horien baldintzen kopia, bermatuta dauden estaldura eta prestazioak zehaztuta daudela bertan.

51. Gogorarazi behar da, azkenik, kirolari buruzko legea garatzen duen araudiak ezarritakoaren arabera, federazioek eskumena dutela aseguru kolektiboak kontratatzeko. Horren inguruan adierazi behar da, aseguru kolektibo horiek kontratatzean federazioak agente ekonomikoak direla merkatuan eta, ondorioz, federazioen jokaerek errespetatu behar dutela antolamendu juridikoa eta, bereziki, Lehia Defendatzeko Legea. Hain zuzen ere, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak hainbat ebazpenetan azaldu du, lehiari buruzko arauak aplikatzeko ondoreetarako, enpresatzat hartu behar dela jarduera ekonomikoren bat egiten duen erakunde oro, erakundearen izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein direla ere (1991ko apirilaren 23ko epaia, Hofner eta Elser, C-41/90, Rec. P1-1979, 21. atala, eta 2004ko martxoaren 16ko epaia, AOK Bundesverband eta beste batzuk, C-264/01, C-306/01 eta C-355/01, Rec. P. I-2493, 46. atala).
52. Era berean azaldu behar da kirol-federazioek irabazi-asmorik ez izatea ez dela eragozpena erakunde horiek, merkatuan eragiketa ekonomikoak egitean, enpresatzat har daitezten lehia defendatzeko araudiaren ondoreetarako (2006ko urtarrilaren 10eko epaia, C-202/04, *Cassa di Risparmio de Firenze eta beste batzuk*).
53. Laburbilduz, legeak federazio-lizentziak tramitatu eta emateko eskusibotasuna ematen die kirol-federazioei eta, horrela, nagusitasunezko jarrera ematen die merkatu horretan. Horrela dago deskribatuta kirola arautzen duen berariazko araudiak titularrak lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen dituzten tituluak ematean federazioei aitortzen dien nagusitasunezko jarrera eskusiboa.

ZAZPIGARRENA.- SALATUTAKO JOKABIDEAREN ABUSUZKO IZAERA

54. Merkatu aipagarria mugatu eta salatutakoak duen nagusitasunezko jarrera egiaztatu ondoren, salatu den jokabidearekin Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2 c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera abusuzko jokaera egin den aztertu behar da.
55. Gauzak horrela, Auzitegiak gogoan izan behar du, doktrina sendotu gisa, eragile ekonomiko batek nagusitasunezko jarrera duenean, merkatuan lehiatzeko duen eskubide eta beharrari uko egin gabe, erantzukizun berezia duela bere jokaera guztietan. Horrela bada, jokaera guztiak behar bezala justifikatuta egon behar dira, eta gainerako lehiakideei dagokienez —bai eta bezero edo kontsumitzaileei dagokienez ere— bidezkoa ez den portaera edo lehia murriztea ez dakarten baldintza objektiboetan



oinarrituta. Erantzukizun hori are eta modu arduratsuagoan kudeatu behar da nagusitasunezko jarrera araudi-xedapen baten bitartez eskuratu edo indartzen denean.

56. Ehiza-jardueraren eremuan, ehizan aritu ahal izateko beharrezkoa da administrazio-lizentzia edo federazio-lizentzia eskuratzea, ehizan aritzeko baimena emateaz gain lehiaketa edo txapelketetan parte hartzeko baimena ematen diola edukitzaileari.
57. Kirol-lehiaketaren eremutik kanpo, ehizan aritu ahal izateko beharrezkoa da ehizarako administrazio-lizentzia izatea, agiri hori izenduna eta besterenezina dela. Lizentzia hori eskuratzeko ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguru harpidetu behar da, eta erantzukizun zibileko aseguruaren espezialitate bat da hori. Bere helburua ehizan aritzearen ondorioz eragin daitezkeen erantzukizunak estaltzea da. Ezin da ehizarako lizentziarik eskuratu aurretiaz egiaztatu ez bada ehizarako aseguru-kontratu hori egin dela, eta ezin izango da ehizan aritu kontratuak ondore guztiak ez baditu. Alderdiek, nahi izanez gero, aseguruaren estaldurak ehiztariaren erantzukizun zibila estaltzea erabaki ahal izango dute, nahitaez harpidetu beharreko aseguruaren mugak gaindituz.
58. Kirol-eremuan lehiaketa ofizialen eremuan egiten da ehiza, eta horretarako beste lizentzia-mota bat behar da (ehizarako administrazio-lizentzia ez dena), hau da, federazio-lizentzia. Lizentzia horrek kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du titularra. Federazio-lizentzia guztiek Kirolari buruzko 14/1998 Legearen 48. artikuluan adierazitako arriskuen estaldura bermatuko duen aseguru izan beharko dute, eta aseguruaren prestazioak, gutxienez, Estatuko lehiaketa federatuetarako nahitaezko kirol aseguruaren gutxienezko prestazioak ezartzen dituen 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoak izan beharko dira. Kirolari buruzko 16/1998 Legean, hori garatzen duen dekretuan zein Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuan federazio-lizentziek aseguru izango dutela dago ezarrita.
59. Lizentziarekin batera (ezin banantzeko moduan) lehiaketa ofizialetan ehizan aritzetik eratorritako arriskuak estaliko dituen aseguru egin beharko da, Kirolari buruzko 14/1998 Legearen 48. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta beraz ezin izango da lizentziarik eman aurretiaz nahitaezko aseguru kontratatu ez bada.
60. Kirolari buruzko legeak ez du ezberdintasunik egiten aseguru kolektiboaren eta eskatzaile bakoitzaren banakako aseguruaren artean, eta legeak bereizten ez badu guk ere ez dugu ezberdintasunik egin behar (*ubi lex non distinguit, nec nos distinguere*). Legeak dioen gauza bakarra da lizentziak nahitaez izan behar duela estaldura zehatz bat duen aseguru berekin. Aseguru hori kolektiboa izan ahalko da, lizentziaren eskatzaileak



atxikitzeko modukoa, edo banakakoa, federazio-lizentziaren eskatzaile bakoitzak aurkezten badu.

61. Nolanahi ere, arauak ez du baztertzen federazio-lizentzia eskuratzeko banakako aseguruak kontratatzeke aukera eta, horrenbestez, aseguru kolektiboak ezin izango du banakakoa baztertu, ez eta banakakoak kolektiboa ere.
62. Euskadiko Ehiza Federazioak uste du ematen diren federazio-lizentziak tramitatzean nahitaez atxiki behar zaiola kontratatutako nahitaezko aseguru kolektiboari, ehizarako araudiak berak hala ezartzen duelako, eta horregatik eskatzen du 15/2007 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako lege-salbuespena aplikatzeko.
63. Auzitegi honen ustez Euskadiko Ehiza Federazioak azaldutako errugabetze-argudio hau ez da egokia: LDLren 4.1 artikulua babespean, egotzi zaion jokabideak lege-estaldura dauka Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legean xedatutakoa oinarri hartuta.
64. Honako arrazoi hauek hartu dira oinarri alegazioa egokia ez dela ondorioztatzeke:
 - 1.- Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak, federazio-lizentzia emateko aurreikusitako betekizunen artean, lizentziak berekin nahitaezko asegurua izan behar duela dio.
 - 2.- Federazio-lizentzia emateko betekizunetako bat da araudi berezian ezarritako estaldurak dituen asegurua kontratatu izana agiri bidez egiaztatzea. Kirolari buruzko legeak dio federazio-lizentziak ematea araututa dagoela eta, beraz, arriskuen estaldura bermatuko duen asegurua agiri bidez egiaztatzen ez bada, ezin izango da horrelakorik eman.
 - 3.- Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak, federazio-lizentziarako aseguru bat behar dela ezartzen duen arren, ez du esaten aseguru hori kolektiboa edo banakakoa izan behar den. Erregelamendu bidez bakarrik aitortzen zaie Euskadiko Kirol Federazioei administrazio-lizentzien erregimena —agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik— ezartzeko eskumena, nahitaezko estaldurak bermatuko dituzten aseguru kolektiboak kontratatzeke ahalmena. (Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuaren 24. artikulua).
 - 4.- Inon ez da azaltzen (ez legean ez erregelamenduan) federatuei kontratatutako aseguru kolektiboa ezartzeko ahalmena duenik federazioak.



65. Euskadiko Ehiza Federazioak egindako jokabidea LDLren 2. artikulua arabera abusuzkoa den egiaztatzeko, gogoan izan behar da xedapen horrek honakoa dioela: *“Debekaturik geratu da enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean”*.
66. Auzitegi Gorenak doktrina sendoa finkatu du LDLren agindu horren edukiari buruz. Zehatz-mehatz honakoa dio Auzitegi Gorenaren 2006ko apirilaren 4ko epaiak:
- “[...] Lehiaren defentsari buruzko legeria Espainiako Konstituzioaren 38. artikulua garapena da eta bere asmoa merkatu askea arautzea da, enpresaburuak baldintza-berdintasunaren arabera lehiatu ahal izan daitezten. Bada, legeria horren helburua, Konstituzio Auzitegiak uztailaren 22ko 264/1993 epaian adierazitakoaren arabera, lehiaren defentsaren askatasuna arautzea da, merkatuan lehia garatzeko enpresa-erabakien bitartez sortutako egoerek eragindako oztopoak prebenitzeko eta, hala badagokio, zigortzeko”.
67. Hainbat abusu-mota daude: a) nagusitasuna duen enpresaren lehiakide direnen —lehiaren lehenengo lerroa— lehia-interesei kalte egiten dieten abusuak, arrazoirik gabe murrizten dutenak nagusitasunezko jarrera islatzen duen merkatuaren hondar-lehia edo balizko lehia (lehiaren kontrako abusuak dira, eta lehenengo mailako abusu izenda daitezke, doktrinak egiten duen bezala); b) nagusitasuna duen enpresarekin kontratuak egiten dituztenen (bezero eta hornitzaileak) —lehiaren bigarren lerroa— lehia-interesei kalte egiten dieten abusuak, dagozkien merkatuen barne-lehia aldatu edo murrizten dutenak (bigarren mailako abusuak); eta c) hornitzaileen eta kontsumitzaileen lehiatik kanpoko interes ekonomikoei kalte egiten dieten abusuak (ustiapen-abusuak izenekoak).
68. Hala ere, nagusitasunezko jarrera erabilita egiten diren merkatuaren lehia-egiturako murrizketa guztiak ezin izango dira abusu-ustiapentzat hartu. Hala diote agindu horien logikak eta horien sistema ekonomikoaren logikak, ez baitute nagusitasunezko jarrera debeketzen, eta ez baitute eragozpenik ipini nahi, ez eta nagusitasuna duten enpresei ere, lor litekeen eraginkortasun handiagoa lortzeko. Abusuzkoak izango dira, beraz, arrazoizkoak ez diren nagusitasunezko jarreraren bitartez egindako lehia-murrizketak (ez dira arrazoizkoak izango antolamendu juridiko eta ekonomikoak horrelakotzat onar lezakeen justifikaziorik ez dutenak). Era berean, nagusitasunezko jarreraren bitartez bezero, hornitzaile eta kontsumitzaileen interes ekonomikoak kaltetu badira, jarrera hori abusu-ustiapentzat hartu ahal izateko, nahitaezkoa izango da justifikaziorik ez egotea. Hori ikusiko da nagusitasuna duen enpresak bere askatasun ekonomiko berezia ez duenean erabiltzen, horrelakotzat hartzeko moduko arrazoirik gabe, benetako lehia-egoeran erabiliko lukeen bezala.



69. Azaldutako guztiaz gain aipatu behar da kalifikatuko den jokabidea objektiboki balioetsi behar dela, alderdi ekonomikoetatik ondorioztatu beharko baita bere abusuzko izaera. Horrenbestez, ez da kontuan hartuko balioespen moralik edo egilearen asmorik, nahiz eta horrek ez duen aukerarik ematen, hala ere, erruduntasunaren beharrezko elementua baztertzeko, jokabideari zorrotz lotu nahi bazaio zigor-efektua. Federazioari egotzitako jokabidea behar bezala balioesteko, egotzitako arau-haustearen mota adierazten duten elementu objektiboak (hau da, merkatu aipagarria, nagusitasunezko jarrera eta horren abusua) aztertzeaz gain, elementu subjektiboak ere (edo jokabidearen asmoa) aztertu beharko dira eta, azkenik, ezarritako zigorra egokia den ala ez balioetsi” (Auzitegi Nazionalaren 2005eko irailaren 26ko epaia, AAJE 2006, 200).
70. Zerbitzuak egindako jokaerak eta Auzitegi honek egindako eginbideak aztertuta, esan daiteke Euskadiko Ehiza Federazioari egotzitako jokabideak (Federazioak nagusitasunezko jarrera duela federazio-lizentziak tramitatu eta emateko merkatuan) lehia hauts lezakeela, LDLren 2. artikuluan adierazitakoaren arabera. Hala da, Euskadiko Ehiza Federazioak, bere lurralde-erakundeen bitartez, ez die aukerarik eman lizentzia-eskatzaileei federazio-lizentzia eskuratu edo berritzeko ehizarako araudiak eskatzen dituen baldintzekin bat datozen banakako aseguruak aurkezteko, eta jardunbide horrek mugatu egiten du lehia garbia, honako ondorio hauek eragiten baititu:
- Alde batetik, interesdunek ezin dute erabili aseguru-kontratazioa hautatzeko askatasuna, Ehiza Federazioak aurretiaz kontratatutako aseguru kolektiboari atxikitze beharra ezartzen baitzaie ehizarako federazio-lizentzia eskuratzeko ezinbesteko baldintza gisa.
 - Beste alde batetik, mugatu egiten da aseguru-etxe, -bitartekari eta -artekariak ehizarako aseguruaren merkatuan sartzeko aukera.

ZORTZIGARRENA.- ZIGORRA ZEHAZTEA

71. Egiaztatu egin da LDLren 2. artikulua zigorra aplikatzeko eskatutako baldintzak betetzen direla, baina Euskadiko Ehiza Federazioari ezarri beharreko zigorra zehaztean, debekatutako jokabidean eragin duten elementu objektibo eta subjektibo guztiak balioetsi behar ditu Auzitegi honek, zigor egokiena ezartzeko, interes orokorra babestearren.
72. Hori dela-eta bereziki aztertu behar da Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren jokaera (EAEko kirol-federazioen babes, kontrol eta aholkularitza juridikorako organoa). Izan ere, Auzitegi honen ustez, Kirol Zuzendaritzaren jokaera erabakigarria izan da aipatutako arau-haustea egiteko, Euskadiko Ehiza Federazioak beti jardun izan duelako organo horrek emandako interpretazio eta argibideei jarraituz.



73. Gogoan izan behar da hainbat aldiz agertu izan dela (autoetan agertzen den bezala) Kirol Zuzendaritzaren ulertzeko modua aseguru kolektiboari atxikitzeko beharrianari edo beharrian ezari buruz, ehizarako federazio-lizentziak eskuratzeko baldintza gisa.
74. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak, honakoa adierazi zuen 2008ko apirilaren 11ko sarrera-data duen gutunarekin emandako erantzunean: [...] *ulertu behar dugu Euskadiko Ehiza Federazioak kontratatuko duen aseguru (lizentziari lotuta dagoela eta Kirolari buruzko Legean eskatutako gutxieneko arriskuak estaltzen dituen) nahitaezko aseguru izango dela, eta kirol-lizentzia emateko eskatzen duten pertsonak onartu beharko dutela, eta kirolari horiek ezin izango dutela banaka kontratatu.*
75. Kirol Zuzendaritzak, halaber, honako agiri hauek aurkeztu zituen:
- Kirol Zuzendaritzaren 2006ko apirilaren 6ko zirkularra, federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedurari buruzkoa
 - Kirolari bati bidalitako gutun argigarria
76. Honakoa zioen “Kirol Zuzendaritzaren 2006ko apirilaren 6ko zirkularra, federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko prozedurari buruzkoa” izenekoak: *Euskadiko federazioak dira federazio-lizentzien erregimena – agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik– ezartzeko eskumena duten erakundeak [...]. Funtzio horrek barne hartuko du, orobat, nahitaezko arrisku estaldura bermatzeko aseguru kolektiboak kontratatzea. Beraz, federazio-lizentzia emateko zein **prozedura**³⁷ erabili behar den eta zein **betekizun**³⁸ konplitu behar diren **arautu** behar du. [...] Lizentziaren agirian argi jasoko dira [...] h) Nahitaezko aseguruaren kuota: titularraren osasun arriskuak estaltzen dituen osasun laguntzako aseguruaren, erantzukizun zibileko aseguruaren eta heriotzagatiko eta galera anatomiko eta funtzionalengatiko kalte ordainen aseguruaren kuota, hain zuzen.*
77. Beste alde batetik, kirolari bati bidalitako gutun argigarrian honakoa adierazi zuen Kirol Zuzendaritzak: [...] *Horrenbestez, federazioen dekretuaren arabera ondorioztatu da euskal lizentziek nahitaezko aseguru eduki beharko dutela beti, eta Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak aukera ematen diela federazioei euskal lizentziek nahitaezko aseguru dutela ziurtatzeko beharrezko akordioak hartzeko. Horrela bada, Ehiza Federazioak eskumena dauka federazio-lizentzia eskatzekotan Euskal Federazioaren aseguru sinatzeko eskatzeko. Ehiztariek nahi duten aseguru oro sinatu ahal izango dute, federazioa*

³⁷ Jatorrizkoan letra lodian

³⁸ Jatorrizkoan letra lodian



edozein dela ere, baina federazio-lizentzia eskuratu ahal izateko nahitaezkoa izan daiteke euskal federazioaren aseguruia izatea.

78. Aplikatu beharreko araudiari dagokionez Kirol Zuzendaritzak izan duen ulertzeko moduak (lehia garbiaren printzipioa hausteko asmorik gabe egin dena) konfiantza legitimoa eragin dio Federazioari, eta ehizarako federazio-lizentziak tramitatu, eman eta berritzearekin lotuta Federazioak izan duen jokaera guztia baldintzatu du horrek. Federazioak uste osoa zuen bere kudeaketa zuzenbidearen araberkoa zela, babes-organoak, asmo onez eta lehiari buruzko araudia hausteko asmorik gabe, aplikatu beharreko araudiari buruz egindako interpretazio ez ortodoxoegiaren ondorioz. Azken alderdi hori Federazioak nahitaezko aseguru kolektiboa kontratatzeke erabili zuen modutik ere ondorioztatu da. Izan ere, jarraitu den prozedurak, kontratu publikoetako legean ezarritakoari egokitzen ez zaion arren, antzeko helburua du, hau da, hainbat eskaintza balioesteko agertoki irekia ezartzea. Zehatz-mehatz gogorarazi behar da Euskadiko Ehiza Federazioak, 2007ko martxoaren 10ean egindako ohiko batzar orokorrean, aho batez onetsi zuela aseguru bat kontratatzea, aurkeztu ziren hiru eskaintzen artean aukeratuta.
79. Auzitegi honen ustez, deskribatutako inguruabarrek nahitaez baldintzatu dute ezarri beharreko zigorraren edukia, kasu honetan ez dela ekonomikoa izan beharko, baizik eta jokabidezkoa.
80. Hain zuzen ere, gaiaren inguruko elementu guztiak hartu behar dira kontuan, eta zerbitzu publiko baten funtzionamenduan zuzeneko eragina duen merkatu murriztua denez (Euskadiko Ehiza Federazioak duela eskuordetuta zerbitzu horren kudeaketa), aipatutako merkatu horren funtzionamenduan eraginkortasun handiagoa sortzeko asmoz ezarri behar da jokabide-zigorra.
81. Horri dagokionez aipatu behar da Ehiza Federazioak uste duela aseguru kolektiboari nahitaez atxikitzeke sistemak hainbat eraginkortasun dituela, eta horiek segurtasun juridiko handiagoa eta giza baliabideak gutxiago erabiltzea ekarriko dutela, ez direlako egiaztatu behar izango ehizarako federazio-lizentzien eskatzaile guztiek aurkeztutako banakako aseguru baldintzak eta estaldurak.
82. Hala da, federatu guztiak aseguru bakar bati atxikita egoteak Federazioak aipatutako eragina izan lezake, baina, era berean, behar ez bezala murrizten du lehia garbia, sartzeko oztopoa eragiten baitie gainerako lehiakideei eta gehien komeni zaien aseguruia hautatzeko askatasuna kentzen baitie interesdunei, muga hori ezartzeko justifikazio objektiborik ege.
83. Hori dela eta, aurrerantzean, Federazioak lizentziak tramitatzen dituenean, interesdunei kontratatutako aseguru kolektiboari atxikitzeke aukera



emateaz gain, onartu egin beharko du lizentzia berriak egin edo zeudenak berritzeko eskatzean, banaka kontratatutako aseguruak aurkeztu ahal izango dituztela eskatzaileek. Hala ere, kontratatutako polizak bete beharreko baldintzak ezartzeaz gain (estaldurak, aldia, etab.), eskatzaileak aurkeztutako agiria betetzeko modua ere ezarri ahal izango du aseguru onartu ahal izan dadin. Zehatz esanda, lizentziak tramitatzeko betekizun ekonomikoen eta prozedura-betekizunen erregulazioaren barruan, banakako aseguru agiria bidez egiaztatze modua ere zehaztu ahal izango du kirol-federazioak, ez diezaion administrazio-gastu osagarrikeragiri Federazioaren gaur egungo funtzionamenduari.

84. Auzitegiak uste du horrela segurtasun juridikoa bermatzen dela eta kudeaketa-gastuak murrizten direla, eta gainera, kalitate-prezio erlazio onena eskaintzen dion aseguru-etxea kontratatze aukera ematen diela ehizarako federazio-lizentzia eskuratu nahi duten interesdun guztiei.

Hori guztia dela eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak honakoa eman du:

EBAZPENA:

LEHENENGOA.- Adierazi egingo da Euskadiko Ehiza Federazioak Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2. artikularen kontrako arau-haustea egin duela. Hain zuzen ere, bere jardunbidearekin, nahitaez eskatu zien ehizarako federazio-lizentziaren eskatzaileei kontratatutako nahitaezko aseguru kolektiboari atxikitze, eta ez zuen aukerarik eman eskatzaileek banakako aseguru kontratatze, nahiz eta estaldura berberak bermatu.

BIGARRENA.- Euskadiko Ehiza Federazioari aginduko zaio etorkizunean ez dezala egin prozedura honetan azaldutakoaren moduko jardunbiderik.

HIRUGARRENA.- Euskadiko Ehiza Federazioak, federazio-lizentziak berekin dakarren nahitaezko aseguru kolektiboa kontratatzean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean xedatutakoa bete beharko du.

LAUGARRENA.- Euskadiko Ehiza Federazioak, federazio-lizentziak tramitatzean, banakako aseguruak aurkezteko berariazko baldintzak ezarri ahal izango ditu, eraginkortasun ekonomiko handiagoa lortzearen.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen xedapen-atala *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* eta Euskal Autonomia Erkidegoan gehien saltzen diren informazio orokorreko egunkari bitan (ekonomiari buruzko orrialdeetan) argitaratzeko



aginduko zaio Euskadiko Ehiza Federazioari. Berak ordaindu beharko du, eta bi hilabeteko epea edukiko du horretarako, ebazpen hau jakinarazten zaionetik aurrera zenbatzen hasita. Agindutakoa bete ezean, 600 €-ko hertsatzeko isuna ezarriko zaio zigortutako enpresari atzeratutako egun bakoitzeko.

SEIGARRENA.- Euskadiko Ehiza Federazioak aurreko ataletan ezarritako betebeharrak guztiak bete dituela justifikatu beharko du Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan.

ZAZPIGARRENA.- Agindeia egingo zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, ebazpen hau guztiz betetzen den begiratu eta zain dezan.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 11

**JAVIER BERASATEGI TORICES
LEHENDAKARIA**

**JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA
LEHENDAKARIORDEA**

**JUAN LUIS CRUCELEGUI GÁRATE
KIDEA**

**JOSÉ ANTONIO SANGRONIZ
IDAZKARIA**